

FUNTSEZKO JARDUERAK

Eginkizun garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan.

Ekoizpena:

Gure enpresaren jarduerarik garrantzitsuenak ekoizpena izango da. Gure katalogoan agertzen diren objektu ezberdinak ekoiztuko ditugu.

Eskainiko diren tailer ezberdinei dagokionez, gu ematen dituzten emakumeekin jarriko gara harremanetan, baina gero jarduera bera haien esku utziko dugu, gure eginkizuna beraz harremanak sortu eta mantentzea da.

Azkenik, gure lokalaren kudeaketa gure esku geratuko da, mantentze lanak eta berritzeak egingo ditugu, bai eta arreta zerbitzua eskaini ere.

Arazoak konpontzea:

Suertatu daitezkeen arazo ezberdinak kontuan hartuko ditugu. Alde batetik, objektuen erabilera txarrari lotuak izan daitezkeenak, autodefentsarako diren objektuak arma gisa erabiltzeko arriskua egon badago, baina objektua erosi duenaren ardura izango da, behin erosi eta eskuratu ostean erabilerari arreta ezartzea, guk ABISU lana egin eta ARDURATSU izateko aholkua luzatuko diegu klienteei.

Arazo informatiko bat suertatu ezker, gure informatikariak konponduko ditu arazoak.

Sareko jarduerak:

Gure web gunea izango da sareko gure erakus leihoa. bi zati ezberdinez osatuko da, bata publiko guztiari zuzendua, zeinetan informazio orokor guztia egongo den begi bistan, eskainiko ditugun tailer ezberdinen agenda, eta gure lokalaren lokalizazioa. gurekin harremanetan jartzeko aukera ere egongo da zuzenean.

Bestalde, emakumeei* zuzenduriko beste parte bat egongo da. horren sarbidea mugatua izango da. Aurretiaz erregistratu beharko da. behin izena emanda, barruan, emakumeen* arteko foro ireki bat egongo da haien artean esperientzia ezberdinak trukatu ahal izateko, bai eta gure objektuekin izaniko esperientzia konpartitzeko ere. bertan, katalogoko objektu denak ere egongo dira begi bistan, eta zuzenean internet bidez erosteko aukera eskainiko da.



Catálogo

¿Qué precio le pones a tu vida?

Catwoman




Nunca Mooda



Untxi Bakkean




Que no te invadan



Aldatu Roll-a



Fuck off



Eres unimcordio.

